

LARRIALDI ELEKTRIKO ZERBITZUAREN BALDINTZAK

Larrialdi Elektriko zerbitzuaren bitartez, abisu eman eta 3 orduren buruan, enpresak bezeroari arreta emango dio Bezeroaren helbidean gertatutako argindar-larrialdiengatik edo bai etxe osoan, bai gelaren batean argindarrik gabe geratzeagatik.

Zerbitzuaren prezioa 1,99 €koa da hileko (BEZ gabe) eta 15 kW baino gutxiagoko potentziatarako dago eskura.

Helmena

Zerbitzu honen bitartez, Bezeroaren sare elektrikoan gabealdia dakarren argindarraren larrialdi kasuetan, Iberdrolak bere gain hartuko du baimendutako instalatzaile batek egindako konponketaren kostua, baldintza partikularretan ezarritako muga kontuan hartuta. Bezeroaren abisua jaso eta 3 ordu igaro baino lehen esku hartzea bermatzen da. Ez dago frankiziarik eta zerbitzu horri lotutako energia hornikuntzaren kontratua indarrean sartu eta hilabete batera ezartzen da gabealdia.

Larrialditzat hartuko da etxeko sare elektrikoan gertatutako ezusteko eta bat-bateko matxura, etxe osoan zein haren atal batean (garajeko, trastelekuko, etxearen eranskineko, igerilekuko eta kanpoko argiztapena salbu) argindarrik eza eragin dezakeena.

Bezeroaren sare elektrikoaren gabealdia 2002ko abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuak onartutako Tentsio Baxuko Araudi Elektroteknikoan ezarritakoa da, bizilagunen elkarteko sarea salbu.

Hona hemen zerbitzuaren estalduran sartzen dena:

- ▶ Joan-etorriak, piezak, eskulana eta zergak, baldintza partikularretan ezarritako urteko gehieneko muga gainditu gabe eta gehieneko esku-hartze kopururik ezarri gabe. Matxura konpontzeko entxufeak, etengailuak edo bestelako gailuak ordezkatzeko beharrezko denean, instalatzaileak erabakiko du zein elementu estandar erabili, baldin eta Bezeroak ez badu bere kontura ordezkotzat piezarik eskuratzen. Ezin da bermatu konponketan erabilitako piezak etxebizitzaren ingurunearekin estetikoki bat etorriko direnik.
- ▶ Sei (6) hilabeteko bermea eskainiko da esku-hartze orotan.

Salbuespenak

Zerbitzuaren estalduratik kanpo geratuko dira:

- ▶ Hainbat gailu elektronikoren konponketa, hala nola etxeko tresnak, ordenagailuak, aire-girotzeko aparatuak, ponpak, berogailuak, motoreak, haizagailuak, generadoreak, eguzki-panelak, antenak eta etxebizitzaren instalazioetan integratuta edo integratu gabe dagoen beste edozein aparatu elektriko.
- ▶ Argiztapenerako gailuen konponketa edo ordezkatzeko, adibidez, lanparak, bonbillak edo hodi fluoreszenteak.
- ▶ Neurgailuen konponketa, argindarra banatzen duen enpresarenak baldin badira.
- ▶ Bezeroaren instalazioetatik kanpo gertatzen diren argindarraren akatsak, aurrez aipatutakoaren arabera.
- ▶ Daños consecuenciales debidos a la falta total o parcial de suministro eléctrico.
- ▶ Bezeroak berak nahita edo bere ez jakintasunaz eragindako kalteak.
- ▶ Matxurarik aurkitu ez den kasuak.
- ▶ Matxura aurkituta ere larrialditzat jotzeko ezaugarriak ez duten kasuak.
- ▶ Merkataritza edo industria instalazioetako zerbitzuak eta, oro har, kontratuan agertzen den etxebizitzari ez dagozkionak.
- ▶ Bezeroak bere kontura kontratatu eta burutu dituen zerbitzuak, aurrez Iberdrolak baimendu ez baditu.
- ▶ Egiteko unean indarrean dagoen legeria betetzen ez duten instalazioen konponketa.

GEHIENEO MUGA GAINDITZEN DUTEN LANEN AURREKONTUAK

Larrialdia konpontzeko lanen kostua gehieneko muga baino handiagoa balitz, kostu gehigarria Bezeroari kobratuko zaio. Hortaz, aldez aurretik, kostu hori zehazten duen aurrekontua egin beharko da. Konponketa hasteko, Bezeroak aurrekontua sinatu beharko du, aurrena, harekin ados dagoela jakinarazteko.

ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK

Iberdrolak hurrengo baldintzetan jasotakoaren arabera emango du Larrialdi Elektriko zerbitzua:

- ▶ Bezeroak eskatutako jarduera zerbitzua estaliko ez balitz (aipatu salbuespenetako bat izateagatik), egindako gastu oro fakturatuko zaio. Iberdrola kontratu honen xede diren lanak ongi egitearen erantzule besterik ez da izango.
- ▶ Bereziki, enpresak ez du kasu hauetan erantzukizunik edukiko:
 - ▶ Behar bezala ez erabiltzeagatik edo ongi ez mantentzeagatik pertsonengan eragindako kalteak edo kalte materialak.
 - ▶ Edozein gailuri edo gailu horien funtzionamenduari eragindako kalteak, gailuak berak eragindakoen kasuan izan ezik.
 - ▶ Estaldurapeko gailuek hirugarrenei eragindako kalteak.
 - ▶ Ezusteko edota ezinbesteko kasuak.
- ▶ Iberdrola ez da greba, matxinada, muturreko fenomeno meteorologiko eta halako ezinbesteko kasuetan gerta litezkeen atzerapenen eta gabealdien erantzule izango.